



Honekin batera bidaltzen dugu ORIOKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN
INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIA eta egindako
kontsulten erantzunak.

Donostia, 2018ko apirilaren 18a
San Sebastián, a 18 de abril de 2018

IDAZKARI TEKNIKOA, / LA SECRETARIA TÉCNICA,

Izp. / Fdo.: Lourdes San Juan Artegain



- INGURUMENEO ZERBITZUA





ORIOKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIA.

Orioko Udalak Hiri Antolaketako Plan Orokorraren ingurumen ebaluazio orokorra egiteko prozedura abiarazi zuen 2015eko uztailaren 21ean. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak, prozedura horretan, bidezko irismen agiria egin zuen 2015eko azaroaren 10ean, 10009ko urriaren 2an, planaren ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztaperen maila finkatzeko. Gero, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 17.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Hiri Antolaketako Plan Orokorraren ingurumen ebaluazio orokorra egiteko prozedura abiarazteko eskatu du, berriro ere, Orioko Udalak. Xede horri begira, 2018ko urtarrilaren 5ean, Udalak abiatze horretarako eskaera eta ingurumen arloko dokumentazioa bidali ditu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetara.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 lege orokorrak, otsailaren 27koak, 41. artikuluan eta I.A) Eranskinean aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura erregulatzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz, hiri antolaketako plan orokorrek – aurrerantzean HAPO– ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura jarraitu behar dute nahitaez.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak bateratze aldera, ingurumen organoak irismen agiri bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztaperen maila finkatzeko. Aldez aurretik, dena den, kontsulta egingo zaie ukitutako administrazioei eta pertsona interesdunei.

Horrela bada, 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ekainaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraituz, Zuzendaritza Nagusi honek Orioko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren IRISMEN AGIRIA egin du; 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako Erreferentziako Agiria, hain zuzen.

1. ORIOko HAPORen PROPOSAMEN NAGUSIAK

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura abiarazteko xedez Orioko Udalak bidali duen dokumentazioak honakoak barnebiltzen ditu: hasierako agiria, eskaera-idatzia (abenduaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskina) eta kontsultatu behar diren administrazio publiko eta herritar interesdunen zerrenda jasotzen dituen. Era berean aintzat hartu da 2014ko irailean egindako HAPORen Aurrerapena ere.

Aurrerapen Agiriak ez du antolamendu itxi bat ezartzen, hirigintzako irizpide eta proposamen zehatz batzuetan oinarrituta; aitzitik, aintzat hartu diren esparruak antolatzeko aukera ezberdinak planteatzen ditu, aztertzeko. Aukera horietako gehienak, Arau Subsidiarioetan jada halakotzat sailkatuak dauden area eta sektoreei



buruzkoak dira, gehienbat, gaur egun lurzoru urbanizaezinean dagoen Palotas esparruan bizitegirako sektore berri bat ezartzeko aukera izan ezik.

Hauek dira planteatu diren proposamen nagusiak:

Lurzoru urbanizaezinen antolamendua. Aurrerakinak proposatzen du udalerriko lurzoru urbanizaezina landa-eremu globalen hainbat modalitatetan sartzea. Landa-eremu horiek, gainera, azalduta, Lurralde Antolatze Gidalerroetan eta Nekazaritza eta Basogintzari buruzko LAPeen zehaztutako antolaketa kategorien baliokideak dira, nahiz eta dokumentuan ez den zehazten eremu horietako bakoitzean erabilera erregulatzeko aplikatu nahi den araudia. Hauek dira dokumentuan planteatu diren landa-eremu kategoriak:

- *Babes bereziko landa-eremuak*, honako azpikategoriak bereizita: kostaldeko itsaslabarrak, baso autoktonoko eta landaretza interesgarriko eremuak, arkeologikoki babesteko eremuak eta paisaia babesteko eremuak.
- *Ingurumena hobetzeko landa-eremuak* Matondo ingurua eta kostaldea babesteko eta antolatze LAPeen mugatutako guneak bereizita.
- *Basogintzako landa-eremua*, malda handiko zonak edo baso gisa ustiatu direnak, edota erreka-arroak dituztenak.
- *Nekazaritza eta abelazkuntzako landa-eremuak eta landazabalekoak*, bi azpikategoria bereizita: nekazaritza intentsiboko zonak eta nekazaritza interesekoak, eta nekazaritza eta abeltzaintzako zona orokorra.
- *Ibai ibilguak eta horien babes eremuak.*

Helburuak, irizpideak eta proposamenak etxebizitza gaietan. Udalak emandako informazioaren arabera, Oriko 5.721 biztanle zituen 2014ko martxoaren 31n. Horiek 2.169 etxebizitzetan bizi dira, hau da, batez beste 2,63 biztanle okupatuta dagoen etxebizitza bakoitzeko. Eta, udalerrian, gaur egun kalifikatua dagoen lurzoruak guztira 291 etxebizitza behintzat hartzeko gaitasuna du aurreikusitako garapenetan, honako esparruetan egikaritu gabe: Duke (137 etxebizitza berri); Munto (88 etxebizitza); Hondartza (36 etxebizitza) eta Pilotalekuko Zabalgunea (30 etxebizitza).

Aurrerapenean adierazten duenez, Oriko biztanleek gutxi gorabehera 8 urtean izan ditzaketen etxebizitza premiei erantzun egin behar die Plan Orokor berriak. Premia hori gutxienez 218 etxebizitza eta gehienez 418 zenbatetsita ezarri da, Urola-Kostako (Zarautz-Azpeitia) Lurraldearen Zatiko Planean egindako aurreikuspenen arabera.

Etxebizitza berriak kokatzeko, aukera ezberdinak planteatu dira bizitegirako eremu berrien banaketari eta diseinuari dagokienez. Eremu horiek lehendik hiri-lurzoru gisa sailkatuak dauden aretan daude eta horiek bakarrik har ditzakete, besterik gabe, etxebizitzaren gehieneko eskaintza aurreikusitako 418 etxebizitzak. Salbuespena HE "10. Palotas" izeneko sektorean dago. Eremu hori gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatua dago baina bertan bizitegirako sektore handi bat ezartzea planteatzen du Aurrerapenak, 766 etxebizitza hartzeko moduko sektore berri bat.

Zehazki, hauek dira Aurrerakinean aldaketak egiteko edo antolamendu-aukera berriak ezartzeko proposatu diren esparruak:

- 1 HE "Alde Zaharra". Kaia etxadia 2.4. HE: Egungo plangintzan indarrean dagoen aukera eta beste antolamendu-aukera bat.
- 3 HE. "Zabalgunea". Leunda: Egungo plangintzan indarrean dagoen aukera eta beste antolamendu-aukera bat.



- 3 HE. “Zabalgunea”. Pilotalekua: Egungo plangintzan indarrean dagoen aukera eta beste bi antolamendu-aukera.
- 14 HE. “Dike” eta 15 HE “Cerámica Arocena”: Indarrean dagoen plan bereziko aukera eta beste bi antolamendu-aukera.
- 2 HE “Mutiozabal”: Indarrean dagoen planeko aukera eta beste bi aukera.
- 10 HE “Palotas”. 8 ha inguruko eremu urbanizaezina da gaur egun. Bizitegi garapenak egikaritzeko hautabide gisa planteatu da, eta horretarako, bi antolamendu-aukera ematen ditu.

Helburuak, irizpideak eta proposamenak jarduera ekonomikoari dagokienez. Aurrerapeneko zenbatespenen arabera, oraingo Plangintzan jasotako aurreikuspenak nahikoak eta egokiak dira gaur egungo eskaerari erantzuteko. Horrela bada, honako jarduketak aurreikusi dira: *Ortzatara* izeneko jarduera ekonomikoen eremua mantentzea eta finkatzea; *Botalekun* eraikin berriak egitea, eta *Aizperro* sektorea egikaritzea. Azkeneko hori indarreko Arau Subsidiarioetan onartua dago, baina egikaritu gabe oraindik.

2. EGINDAKO KONTSULTAK

Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauek kontsultatu genituen:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde ordezkariak.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Ur Konfederazioko Uren Ikuskatzaitza.
- Kostaldean Zerbitzu Probintziala
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).



- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Gipuzkoako Uren Partzuergoa.
- Urkome.
- Urola Kostako mankomunitatea.
- Aiako Udala
- Donostiako Udala.
- Usurbilgo Udala.
- Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Itsas Enara ornitologia elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte
- Herri Natur Taldea
- Talai Mendi Elkarte
- Topagune Berdea
- Kalapie Hiriko txirrindularien elkarte
- Orioko Arrantzaleen kofradia.
- Orioko Herri Ikastola
- Zaragueta Herri Eskola

Era berean, hasierako agiria eskura egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, www.gipuzkoaingurumena.eus, herritar guztiek bidezkozat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza jakinarazi zuenez, Orioko HAPON kategorizatu eta kartografiatu egin behar da udalerriko lurzoru urbanizaezina. Horretarako, nekazaritza eta basogintzari buruzko LAPean jasotako kategoriak erabiliko dira (balio estrategiko handiko azpikategoria espresuki sartuta, loteslea izango baita) eta "herri onurako mendiak" eta "eremu higagarriak" baldintzatzaile gainjarriak adieraziko dira, kategoria bakoitzari dagokion erabilera araubidea adieraziz, LAPean xedatutakoaren arabera. Txosten horretan eskatu zuen, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritzak 2015ean egindako txostenari jarraituz, Palotas esparrua garatzeko proposamena ezesteko eta Aizperro esparruari duen sailkapena kentzeko aukera aztertzeke. Gainera, nekazaritza eta basogintza antolatzeke LAPean ezarria dagoen nekazaritza sektorearen gaineko afekzioa ebaluatzeke protokolo bat erabili beharko litzateke. Kantauriko Ur Konfederazioak jakinarazi digunez, Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Ur Konfederazioak uren jabari publikoa eta honen kontrol eremua kudeatzeko adostua duten administrazioen arteko lankidetzari jarraituz, Uraren Euskal Agentziari (URA) bidali diote eskaera, Konfederazioak egiten duen txostena edozein dela ere.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak bere txostenean jakinarazi digunez, HAPON planteatutako ildo estrategikoak eta helburuak bat datoz Osasun Saileko plan estrategikoetan azaldutakoarekin; eta ingurumen azterketa estrategikoan balioetsi egingo da ildo estrategiko eta helburu horien garapena.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak adierazi digunez, kontuan hartuta plan honetan planteatu diren antolamendu hautabideak 2015ean proposatutako berberak direla, baliagarria da 2015eko irailean egindako



txostenean zehaztutakoa. Txosten horretan, biodibertsitatea zaintzeko iraunkortasun irizpideak eman ziren, Orioko balio naturalei buruzko informazioa eman zen eta, era berean, HAPOko jarduketek natur baliabideetan eta biodibertsitatean eragin ditzaketen inpaktuen atariko azterketa bat egin zen, alor horiek babesteko eta bere onera ekartzeko aintzat hartu behar diren alderdiak identifikatuta. Eta adierazi du Palotas esparrua bateraezina dela hezeguneen LAPean xedatutakoarekin.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zuzendaritzak Orioko udalerrian dauden kultur intereseko elementuen zerranda bidali du, elementu multzo bakoitzari aplikatu beharreko babes araubideak gogoraraziz. Txosten horretan ohartarazi duenez, Kultura Ondarearen Katalogoak aldian-aldian berrikusi egiten dira; horregatik, gerta liteke analisisian antzeman ez diren elementuak egotea, edota etorkizunean elementu berriak sortzea, eta HAPOn aurreikusi egin beharko litzateke elementu horiek babesteko araubidea.
- Uraren Euskal Agentziak (URA) Kantauriko Ur Konfederazioak egindako txostena bidali du eta horretan garbi ageri da Orioko udalerria ez dagoela Konfederazioaren eskumeneko lurralde eremuan. Baldin eta udalerria hornitzen duten eta HAPOn xedatutakoaren ondorioz sortuko diren eskaerei erantzuteko baliatuko diren ur baliabideak Konfederazioaren lurralde eremuko arroetatik etorriko balira, eta orduan bakarrik, ezinbestekoa izango litzateke erakunde horren irizpena.

Irismen agiri hau egin eta gero beste erantzunen bat jasotzen badugu, Orioko Udalari bidaliko diogu ahal bezain laster, erantzun hori aintzat har dezan bai HAPO idazterakoan, eta bai ingurumen azterketa estrategikoa egiterakoan.

3. INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Hiri Antolaketako Plan Orokorrak, udal lurraldea modu integralean antolatzeko oinarrizko tresna den aldetik, hirigintza jarduerak eta azpiegiturek eragindako ingurumen inpaktu kaltegarriak minimizatzeaz gain, udalerriko ingurumen kalitatea hobetzen lagunduko du, baldin eta ingurumen alderdiak behar bezala txertatzen badira behintzat.

Hori horrela, Orioko HAPO idazterakoan aintzat hartu beharko lirateke segidan aipatuko ditugun helburu eta irizpideak; eta gainera, Planean aurreikusitako jarduerak eta zehaztapenak adieraziko ditugun arauetara egokituko direla bermatu beharko litzateke.

3.1. HAPOren ingurumen helburu estrategikoak, gutxienez honako helburu hauei begira ezarriko dira:

- HAPO udalerriko ingurumena hobetzeko tresna moduan hartzea, eta ez ingurumen inpaktuen sorburu gisa bakarrik. Planari ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak eranstea.
- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gainetik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPO egiterakoan.
- Lurzoruaren erabilerak esleitzerakoan, natur eta nekazaritza baliabideen kalitatea eta urrakortasuna kontuan hartzea, eremu batzuen eta besteen



ingurumen kalitatea eta aurreikusitako erabilerak hartzeko duten gaitasuna bezalaxe.

- Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzorua bakarrik mugatuz.
- Dentsitate ertain edo handia duten eta erabilerak behar bezala uztartuak dituzten hirigune trinko eta anitzak lehenetsiko dira, dentsitate txiki edo oso txikiko egoitza-garapen berriak baztertzuz. Era berean, etxebizitza bakanaren edo atxikiaren tipologia ere baztertu egingo da, hiri eredu bakan eta zehaztugabea bultzatzen baitute; gainera, tipologia horrek lur asko okupatzen du eta energia nahiz material asko kontsumitzen du.
- Bigarren bizileku izango diren etxebizitzaren eskaintza minimizatzea eta, oro har, luraren kontsumoan oinarritutako ereduak ekiditea. "Etxebizitza hutsa" okupa dadin sustatzea.
- Oraingo hiri-bilbeentzako optimizazio funtzionala eta birmoldaketa bultzatzea, betiere bilbe horiek birgaituz, berregituratuz edota berrituz, eta abandonatutako eremuak bere onera ekartzea, lurzorua nahiz baliabideak optimizatzeako estrategia gisa.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera ezberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin. Mugikortasun eskaera kudeatzea, oraingo banaketa modala oinez ibiltzera, bizikletara eta garraio publikora bideratuz.
- Gerta litezkeen hiri garapenak eta azpiegiturak aurkitzea, eta honako baldintza hauek ziurtatuko diren moduan antolatzea:
 - Natura baliabide baliotsuen gaineko eraginak minimizatzea.
 - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera izatea.
 - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
- Lurzoru urbanizaezina modu egokian antolatzea, nekazaritza eta basogintzako LAPean ezarritako antolaketa kategoriak erabiliz eta Lurralde Antolaketa Gidalerroetan xedatutakoari jarraituz (jarduera sustatuen, onargarrien eta debekatuen matrizea aplikatuta). Hau da, landa ingurunea zaintzea, oreka bat bilatuz ingurune horren garapen ekonomikoaren eta ekosisteman dagokion helburuaren artean (lehengaiak hornitzea, ingurunea zaintzea...) ingurumen eta paisaia arloko kalitate baldintza egokiak bermatuz.
- Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz.
- Baliabideen balantzean (ura, energia eta materialak) ondorio kaltegarriak murriztea, sortutako hondakinak eta kutsatzaileak bezalaxe, bai eraikuntzan (eraikinak, egiturak, urbanizatzeko lanak, eta abar) eta bai funtzionamendu fasean; eta zikloak ixte aldera jotzea.
- Sorburu berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuak ezartzeko aukera ahalbidetzea.



- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, uren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako distantziak eta zortasunak errespetatuko dira, eta era berean, jarduketak saihestu egingo dira akuiferoak kutsatzeko arriskua erakusten duten eremuetan.
- 3.2. Orioko HAPO egiterakoan, aintzat hartuko dira honako dokumentu eta arau hauetan jasotako iraunkortasun irizpideak eta printzipioak:
- Orioko Tokiko 21 Agendako Jarduketa Plana.
 - IHOBE. 2005. Hiri Plangintza Iraunkortasun Irizpideekin idazteko gidaliburua.
 - Garapen jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa (2020).
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko lege orokorraren, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, 2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikulua.
 - Lur Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. eta 10. artikulua.
 - Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.
 - Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 2. artikulua.
 - Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.
 - Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 4. artikulua.
 - Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 6. artikulua.
 - Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
- 3.3. Hauek dira irismen agiri hau egiteko garaian aintzat hartu ditugun eta Orioko HAPO egiterakoan ere kontuan hartu behar diren ingurumen arloko arau nagusiak:

Europakoa

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 22an emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, ur politiken alorrean batasun mailako esparrua ezartzekoa.
- 2006/118/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, lurpeko urak kutsaduratik eta narriaduratik babesteari buruzkoa.



- 2004/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

Estatukoa

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lur Legearen testu bateratua onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.
- 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeeiei buruzkoa.
- Ley 2/2013, de 29 de mayo, de protección y uso sostenible del litoral y de modificación de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas.
- Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen testu bateratua onartzen duena, eta berori garatzeko erregelamenduak.
- 400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

Autonomia Erkidegokoa

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, ingurumena babesteko lege orokorra.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onartzen dituena.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.



- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duena, eta naturaren zaintzari buruz erkidegoan indarrean dauden gainerako araudiak.
- 7/1990ko Legea, uztailaren 3koa, euskal kultura ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, nekazaritza eta elikagaigintza politikari buruzkoa.

Gipuzkoakoa

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiei buruzkoa.

4. INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. ORIOKO UDAL BARRUTIKO BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK

Ebaluatuko den esparru geografikoak Planean aurreikusitako jarduerak eragingo dituzten ondorio guztiak ebaluatzeko behar hainbatekoa izan beharko du, hirigintzako jarduerak ez ezik araudi aldaketek ingurumenean dituzten eraginak ere kontuan hartuta. Oro har, Orioko udal barruti osoa hartuko du, nahiz eta alderdi jakin batzuek udal barrutiaz gaindiko eremuan gertatuko diren eraginak aztertzea eskatuko duten; esate baterako, paisaiaren edota ur baliabideen gainean gertatuko diren ondorioak aztertu behar direnean.

Ingurumen ebaluazio hori xehetasun maila handiagoz egingo da hautabide batzuek eta besteek eragin handiko jarduketak aurreikusten dituzten eremuetan; esate baterako, hirigintza garapenak egitea aurreikusi den eremuetan.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan jasotako informazio bibliografiko eta kartografikoa begiratu ondoren, eta beste administrazioetatik jasotako erantzunak aintzat hartuta, ingurumen interes bereziko baliabide eta eremu hauek identifikatu ditugu Orioko udal barrutian:

- 4.1. **Oriaren itsasadarra. Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE).** HAPOk araudiak eta zehaztapenek bateragarriak izan behar dute 2015eko martxoaren 17ko 34/2015 Dekretuan ezarritako kontserbazio neurriekin eta zonakatzearekin, dekretu horrek onartzen baititu ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak. Era berean bat etorri behar dute eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onartzen dituen urriaren 16ko 215/2012 Dekretuarekin. Lurzoru urbanizaezinari buruz HAPOn ezartzen den araudiak eremu hori babesten lagundu behar du, eta berori kontserbatzeko planifikatzen diren neurriak aplikatzea erraztu. Xede horiei begira, KBErako egokia den baldintzatzaile gaingarri bat aplikatzea gomendatzen dugu; edo bestela, eremua oso-osorik lurzoru urbanizaezina antolatzeko Babes Berezia kategorian sartzea. Dena den, azkeneko hori erabakitzen bada, kategoria horri lotutako erabileren araubidea zehaztu egin beharko da, KBEaren kontserbazio helburuekin bateragarriak diren basogintza, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak ez eragozteko.
- 4.2. **Baso erdinaturalak.** HAPOn zaindu egin behar dira hobekien kontserbatuak dauden harizti, haltzadi, eta hostozabal eta gaztainondo osatutako baso



mistoak, *Babes berezia* kategorian sartuta. Ahal dela behintzat, kontserbazio aktiboko neurriak aplikatu beharko lirateke; esate baterako, titulartasun pribatukoak diren eta balio ekologiko handia duten basoak udalaren lur ondarean sartzea, edota lurraldea zaintzeko akordioak ezarrita, baso horiek kontserbatuko direla eta baso-masa helduagoak osatzera iritsiko direla bermatuko den moduan. Hori horrela, berriazko diagnostiko bat egitea gomendatzen dugu, kontserbatzeko baliorik handiena erakusten duten unadak identifikatzeko eta, aldi berean, II.2. *Baso autoktonoko eta landaretza interesgarriko eremuak* planoan egindako mugaketa hobeto zehazteko.

4.3. **Erkidegoaren intereseko habitatak.** Erkidegoaren intereseko habitatak zaintzen eta hobetzen saiatu beharko da, zonakatze egokia eginda eta lurzorua erabilerak behar den moduan araututa, eta habitat mota bakoitza eta honen kudeaketak eskatzen dituen baldintzak aintzat hartuta. Nolanahi ere, aurreko apartatuan adierazitakoaren ildotik, hobekien kontserbatuak dauden baso habitatak, duna-sistemak eta padurak *Babes berezia* kategorian sartu beharko lirateke.

4.4. **Mendozorrotzeko errekaak.** Errekasto horiek faunarentzako eremu interesgarriak dira hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) banaketa gune izan daitekeelako; baina horrez gain, landare-espezie interesgarriak dituzte, *Stegnograma pozo* eta *Woodwardia radicans*, besteak beste. HAPOn modu egokian babestu behar dira eremu horiek eta, beharrezkotzat jotzen bada, eremu horien ingurumen baldintzak hobetzeko neurri bereziak ezarri.

4.5. **Hezeguneak.** Oriaren itsasadarra garrantzi handiko hezegunea da, hain zuzen ere hezeguneei buruzko LAParen II. Multzoan sartua; beraz, antolamendu eta erabilera-araubide espezifiko bati lotua dago

Oriok baditu, halaber, III. Multzoan jasota dauden lau hezegune artifizial. Honako hauek:

- EG11 Orio-Aginagako urtegia.
- GG14 Orioko dunetako putzua
- GG18 Anoko putzua
- GG19 Arkumutegiko putzua

Azkeneko hiru horiek, beren berezko balioaz gain, hegoaldeko zuhaitz-igelaren habitat dira. Beraz, gomendatzen dugu Orioko HAPOn egitean hezegune horiek kontuan hartzea eta bakoitzari dagokion babes maila egokia ematea, kasuan kasuko antolamendu kategorian sartuta. Bestetik ez dira ahaztu behar 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduan erabakitako xedapenak, izan ere zuhaitz-igela (*Hyla Meridionalis*) kudeatzeko plana foru agindu horretan onartu baitzen, berori babesteko arau osagarriak ere emanda.

4.6. **Kostaldeko eremua.** HAPOk lurzoru urbanizaezinaren kategorian sartu behar ditu Kostaldea babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean Babes Berezia edo Ingurumena Hobetzea kategoriakotzat definitu dituen udalerriko eremuak, eta horiei, LAPak ezarritako erabilera-araubidea aplikatu.

4.7. **Flora mehatxatua.** Gorago aipatu ditugun *Stegnograma pozo* eta *Woodwardia radicans* horiez gain, Oriok badira Mehatxupeeko Faunaren eta Floraren Euskal Zerrendan jasota dauden espezie batzuk; besteak beste, "Galtzeko arriskuan" kategorian jasotako hainbat espezie.



Populazio horiek kalterik jasan ez dezaten, populazio horientzako mehatxu bat izan daitezkeen urbanizazio-jarduketak edo beste nolabaitekoak egitea aurreikusi diren esparruen azterketa botaniko bat jaso beharko da ingurumen azterketa estrategikoan.

Era berean, hondartzaren hego-mendebaldeko ertzean 2011n eraberritutako landaretza hondar-finkatzailea behar bezala babestu beharko da, arriskuan dauden landare-espezie psamofiloentzako habitat bat izan dadin etorkizunean.

4.8. **Nekazaritzarako gaitasun handiko lurrak.** HAPOk babestu egin behar ditu nekazaritzarako lurzoruak; bereziki, ekoizpen handienekoak eta nekazaritzari eta basogintzari buruzko LAPean *Balio Estrategiko Handiko* lurzoru gisa kalifikatuta daudenak. Orion honako eremu hauetan daude nekazaritzarako gaitasun handiko lursail nagusienak: Palotasen, San Martin auzoan (neurri batean Aizperroko poligonoa egikaritzearen eraginpean), Etxaizarrako baserri gunean, eta Benta Aldean. Ildo honetan esan behar dugu eremu horiek ez datozela bat Aurrerapenaren II.2 planoan mugatutako "nekazaritza intereseko eremuak" sailekin.

4.9. **Paisaia-interes bereziko eremuak.** Paisaia da Oriok duen baliabide nagusienetako bat; beraz, paisaiaren kalitatea zaintzea aurreikusi behar da plangintzaren fase guztietan, bai HAPOren bitartez egiturazko antolamendua egin eta erabilerak esleitzerakoan, eta bai HAPO garatzeko plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezartzerakoan. Ildo horretan, hirigintzako jarduketa guztietan paisaian integrazteko azterlan bat egitea gomendatzen dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 Dekretuak, ekainaren 3koak, 7. artikuluan aurreikusi bezala.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak Urola Kostako paisaiaren katalogoa egin du eta Area Funtzional horretako paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzekeo xedapenak eman ditu. Xedapen horiek Lurraldearen Zatiko Planean jaso ditu Ingurumeneko eta Lurralde Politikako sailburuak 2016ko urriaren 28ko Aginduaren bitartez, izan ere agindu horretan onartu baitzen, hasierako izaeraz, Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Area Funtzionaleko LZParen aldaketa, paisaiari buruzko xedapenei dagokienez. Katalogo horretan, paisaia-interes bereziko eremu hauek identifikatu dira Orioko udal barrutian:

- AEIP: 06. Oriaren itsasadarra (eremu babestua).
- AEIP: 16. San Martin (eremu babestuari lotu gabea).
- AEIP: 17. Kukuarri-Itsaspe (eremu babestuari lotu gabea).
- AEIP: 32. Ubegun Santiagoerreka (bere onera ekartzeko eta dagokion balioa emateko premia duen eremu gisa).

Arestian aipatutakoaz gain, HAPO idazterakoan aintzat hartu beharko dira 2016ko urriaren 28ko Aginduarekin zerikusia duten dokumentu teknikoetan eta Urola Kostako paisaiaren katalogoan bertan jasotako xedapenak eta neurri eta egintza zehatz guztiak.

4.10. **Herri onurako mendia 1.061.1: Mendizorroitz.** HAPOren araudiak arau izaeraz jaso beharko du Mendizorroitz herri onurako mendiaren mugaketa, EAEko nekazaritzari eta basogintzari buruzko Lurraldearen Arloko Planak xedatutakoari jarraituz. Hori horrela, lurzoru urbanizaezineko antolamendu kategoriei



gainjarritako baldintzatzaile bat HAPOn araudian zehaztea eta aplikatzea gomendatzen dugu, LAPean aurreikusitakoarekin bat, betiere.

- 4.11. **Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak.** HAPOn identifikatu egin behar dira, eta modu egokian babestu, bai izendatutako edo inbentarioan sartutako kultur ondasunak, eta bai balio arkeologikoa izan dezaketen eremuak edo gune megalitikoak. Ildo horretan aintzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak bidalitako txostena.
- 4.12. **Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan jasotako gune babestuak.** Gainjarritako baldintzatzaileei eta hauek erabileretan izan lezaketen eraginari dagokienez, HAPOn aintzat hartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuen erregistroan jasotako eremuak.
- 4.13. **Kalitate akustikoa eta atmosferikoa.** Planean aurreikusi egin beharko dira eremu honetako ingurumen kalitatea eta osasun baldintzak bermatzeko neurriak; bereziki, bizitegi erabilerak eta nekazaritza ustiategiak hartzen dituzten eraikinei dagokienez. Aldaketaren helburua kontuan hartuta, arreta bereziaz begiratuko dira ingurune honetako airearen kalitatea eta akustikoa.
- 4.14. **Arrisku naturalak.** HAPOn planteatutako antolaketan aintzat hartu beharko dira kokaleku ezberdinek izan ditzaketen arrisku naturalak. Ildo horretan, arriskuen mapa bat jaso behar du ingurumen eraginaren baterako ebaluazioak.

5. INGURUMENAREN IKUSPEGITIK PROBLEMATIKOAK DIREN KOKALEKUAK ETA JARDUERAK

Orioko HAPOn Aurrerapen agirian jasotako antolamendurako eta hiri garapenerako proposamenak aztertuta, erabaki dugu honako jarduera hauek arazo edo ondorio nabarmenak eragin ditzaketela ingurumenean:

1. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria Aizperron: Gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioak 2007an onartzearen ondorioz sailkatu zen, Aizperron, jarduera ekonomikoetarako poligono berri bat ezartzeko lurzoru urbanizagarria. Hala eta guztiz ere, poligonoa gauzatzeke dago oraindik, eta udalerrriaren egiturazko antolamendua berrikusteko prozesu hau aukera egokia da aipatutako jarduera hori berriro aztertzeke; izan ere, ingurumenaren ikuspegitik problematikoa da, honako arrazoi hauek direla eta:
 - a. Landa ingurunean, gaur egungo hiri-bilbetik aparte, hiri-espazio berri bat sortzea dakar; eta hori ez dator bat lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak adierazitako printzipio honekin: *“hiriguneak barreiatu eta sakabanatzeko joera baztertu egingo da, lurraldeak bere oinarrizko funtzioari eutsiko dio, ingurumenaren balioak babesteko zimendu izateari, hala hiriguneetan, nola landaguneetan eta naturaguneetan; eta bestetik, erabilerak eta jarduerak era askotakoak izanik, horiek guztiak espazioan egoki uztartu behar dira, jendea ahalik eta gutxien mugiarazita”*.
 - b. Poligonoa ezartzeko planteatu den kokalekuak ingurumen arloko baliabide eta balio nahiko handiak ditu. Indarrean dauden Arau Subsidiarioen ingurumen ebaluazioan agerian geratu zen bezala, eremu hori urbanizatzeak ingurumen ondorio nabarmenak eragingo ditu paisaiaren kalitatean, nekazaritzako ekoizpen handiko lurzoruetan, erkidegoaren intereseko hiru habitat motetan eta uren jabari publikoan.



- c. Jarduketa hori ez dator bat Urola Kostako Lurraldearen Zatiko Planean ezarritako antolamenduarekin. Izan ere, Plan horren arabera, *“hazkunde handi samarreko”* udalerrien artean dago Orio; eta Plan horrek honako irizpide orokorra ezarri du udalerrri horiei begira: *“hiri-plangintzan ez ezartzea ekonomia-jardueretarako lurzoru urbanizagarriko sektore berrien antolamendurik –pizgarri izango diren ekimen publikoetarako izan ezik–. Hala badagokie, bertako hazkundeak jasotzeko aurreikusi diren hiri-lurzoruko eremuetarantz bideratuko dira garapen berriak”*.

Horrela bada, ingurumenaren eta lurralde iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta, Aizperroko poligonoa eraikitzeke aukera berriro aztertzea komeni da; izan ere, poligono hori egikaritzeak ingurumen inpaktu handiak eragingo baititu eta, gainera, eskualdea antolatzeko egin diren azterketetan (Urola Kosta LZP) ez da antzeman Orion industrialde berri bat egiteko premia edo egokiera. Ildo horretan, hirigintza iraunkorraren irizpideak ekarri behar ditugu gogora, Aurrerapen agiriak bere egin dituenak, hain zuzen. Eta irizpide horien joera da lehendik narriatuak edo artifizializatuak dauden lurzoruak aprobetxatzea eta berrerabiltzea, eta ahal den neurrian behintzat, lurzoru “naturalaren” kontsumoa saihestea. Irizpide horiei jarraituz, eta etorri den testuinguru sozioekonomiko berria dela eta, plangintzaren berrikuspenean hasiera batean jarduera ekonomikoetara bideratutako lur azalera murrizten ari dira lurraldeko hainbat udalerrri.

Palotas eremua lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea: Kontuan hartuta Oriok bizitegirako hiri-lurzoru nahikoa izango lukeela HAPOren indarraldirako aurreikusi diren premiei erantzuteko –eta agiri horrek, Urola Kostako LZParekin bat etorritz zenbatetsi duenaren arabera, premia hori 218 eta 418 etxebizitza bitartekoa izango litzateke– ez dugu ikusten *Palotas* esparrua udalerriko lurzoru urbanizagarrian sartzea komeni denik. Palotas eremuak nekazaritzarako gaitasun handiko lurrak ditu, eta Hezeguneei buruzko Lurraldearen Zatiko Planaren aplikazio esparruan dago. Horregatik, eremu hori lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzeko arrazoi bakarra izango litzateke udalerriak lur-eskasia nabarmena izatea bizitegi premiei erantzun ahal izateko. Beraz, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta, baztertu egin behar da antolamendu-aukera hori.

6. LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK

HAPOk, lurzoru urbanizaezinari dagokionez, naturako eta nekazaritzako baliabideen erabilera iraunkorra bermatuko duen antolamendua ezarri behar du; eta horrek, gainera, babes egokia eman behar die baliotsuenak edota urrakorrenak diren elementuei. Antolamendu hori gauzatzeko honako irizpideei jarraituko zaie:

- 6.1. Udalerriko lurzoru urbanizaezin guztirako erabilerak eta jarduerak arautzeko, Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetan eta Nekazaritza eta basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.

Lurzoru urbanizaezina kategoriatan banatzeko, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera gaitasuna, eta hartzen dituzten natur baliabideen urrakortasuna eta balioa hartuko dira oinarritzat. Xede horiei begira, II.2 *Kalifikazio orokorra* planoan islatutako erabileren sailkapena zehaztea eta hobetzea gomendatzen dugu, aldeztu aurretik udal barrutiko ingurune fisikoaren eta biologikoaren diagnostiko bat eginda; eta diagnostiko horretan, baliabideen, paisaiaren eta ekosistemen egoera zehaztea, zona bakoitzaren erabilera



gaitasuna bezalaxe. Antolamendu horretan kontuan hartu beharko dira honako alderdi hauek:

- Kostaldea babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoari jarraituz, Plan honetan bertan eta Ingurumena Babesteko eta Hobetzeko Plan Berezian zehaztutako eremuak lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan jaso behar du udal plangintzak.
- Hezeguneei buruzko Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolamendua aplikatuko du.
- Nekazaritzari eta basogintzari buruzko LAPean zehaztu diren nekazaritzarako gaitasun handiko lurzoruak jasoko ditu. Nekazaritza eta basogintzako LAPak "Balio Estrategiko Handiko" nekazaritza eta abeltzaintzako kategorian sartzen duen udalerriko lur azalera guztiak lurzoru babestua izan behar du, eta LAPean jasotako Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizean kategoria horri buruz ezarritako erabilera araubidea aplikatuko zaio. Esa behar dugu, *nekazaritza intentsiboko eremu* gisa izendatu den saila –Aurrerapenean kartografiatua dagoen nekazaritza intereseko eremua– ez datorrela bat LAPean mugatutakoarekin.
- Lurraldearen arloko planetan halakotzat definitutakoez gain, *Babes berezia* kategorian sartuko dira hobekien kontserbatuak dauden baso erdinaturalak, eta beste habitat interesgarri batzuk, baldin eta hauek kontserbatzeko, nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarik behar ez bada behintzat. Bidezko iritziz gero, interes bereziko lursailak Udalaren lur ondarean sartzeko aukera aztertuko da (erosita, lagata, desjabetuta), edo bestela, jabeekin lurraldea zaintzeko akordioak ezarriko dira, habitat horiei eusteko edo hobetzeko.
- *Ingurumenaren hobekuntza* kategoria ezartzea komeni da. Eta, Motondon padura berreskuratzeko eremuaz gain eta Kostaldea babesteko eta antolatzeko LAPean halakotzat mugatutako eremuez gain, kategoria horretan sartuko dira ingurumen baldintzak leheneratzeko premia erakusten duten eremuak; esate baterako, higadurak narriatutako eremuak edo espezie arrotz inbaditzaileen presentzia nabarmena dutenak.
- Baldintzatzaile gainjarriak. Orioko natur ingurunearen eta nekazaritza eremuaren ezaugarriak ikusita, baldintzatzaile gainjarri hauek behintzat zehaztea eta antolamenduko kategoriei aplikatzea komeni da:
 - o *Oriaren itsasadarra Kontserbatzeko Zona Berezia*, baldin eta KBZ oso-osoarik *Babes berezia* kategorian ez sartzea erabakitzen bada. Eremu horretan, nolana ere, bere adierazpenean ezarritako araudia eta kontserbazio programa aplikatuko dira. HAPON beste oharpen hau ere egin beharko da; alegia, lekuaren kudeaketarekin zuzenean lotua ez egon arren, edota kudeaketa horretarako beharrezkoa ez izan arren, leku horretan nabarmen eragin lezakeen plan, programa edo proiektu orok, izan litzakeen eragin guztiak behar bezala aztertu beharko dituela.
 - o *Eremu higagarriak*. Nekazaritza eta basogintzari buruzko LAPean halakotzat grafiatutako eremuetan, hau da, Orioko udal barrutian hirigunetik kanpo dagoen azalera ia-ia osoan alegia, zuhaitz estaldura mantentzeko edo sustatzeko irizpideari jarraituko zaio, eremu horiek higadura fenomenoetatik babesteko funtsezko elementu gisa; era berean, lurzoruaren egonkortasunean eragin dezaketen jarduerak



saihestu egingo dira, nekazaritza eta basogintzako jarduketara egokiak arreta osoz zainduz.

- *Herri onurako mendiak.* 1.061.1 *Mendizorrotz* herri onurako mendia antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile gisa jaso behar da, eta horretan, Gipuzkoako mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauak, urriaren 20koak, erabakitako araudia eta mugak aplikatuko dira. Mendi horiek babes berezia kategorian sartzeko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, udal plangintzak ere kategoriatan horretan jasoko ditu.
- *Urak har ditzakeen eremuak.* Uholde arriskua erakusten duten Urola ibaiaren ertzetan aplikatuko da. Eta aplikatu beharreko irizpidea izango da: uraren zirkulazio librea bermatzea, ur ibilguak eta isurtegi-guneak ito edo oztopatu gabe, eta beren bidetik ateratako uren eraginpeko instalazio, azpiegitura eta eraikuntzetan kalteak prebenitzea.

6.2. Lurzoru urbanizazinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak ezarriko dituzten ordenantza erregulatuak. Bestek beste, honako alderdi hauek erregulatuko dituzte: hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuaren paisaia baldintzen lehengoratzeko, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaien zaintza eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

7. HIRI-LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK

Hiri eremuak antolatzerakoan eta, halakorik izanez gero, sektore urbanizagarri berriak mugatu eta antolatzerakoan, txosten honen 3. apartatuan aipatutako helburu eta irizpideekin bat etorritik, honako gomendio hauei jarraituko zaie:

- 7.1. HAPON aurreikusitako hirigintza jarduerak, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta egikarrituko dira, eta une bakoitzean benetan dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa saihestuz.
- 7.2. Eraikinen iraunkortasuna ziurtatzeko eta bizitegirako eremuen ingurumen kalitatea bermatzeko ahalegina egingo da; hori horrela, bai eraikuntza eta urbanizazio ordenantzetan, eta bai sektore berrien antolamendu xehatuan, honako helburu hauek lortzera bideratutako irizpideak eta baldintzak jarriko dira:
 - Hiri eremuak eta zona urbanizagarriak natur arriskuen mende egon daitezkeen ekiditea.
 - Eraikin berrien efizientzia energetikoa bermatzea, eraikinen orientazioa une oro kontuan hartuz eraikinaren portaera energetikoa hobetzeko, eguzki-argia hobeto aprobetxatzeko, isolamendu termikoa areagotzeko, eta abar. Era berean, eraikin berriek energia berriztagarriak (eguzki-energia, eolikoa, ...) sortzeko aukerak baliatzeko modua bilatuko da. Ildo horretan, eta Eraikuntzako Kode Teknikoak dioenarekin bat etorritik, ur bero sanitarioa hornitzeko edota berokuntzarako, eguzki-endarra bilduko duten sistemak eta metagailuak ipiniko dira.

Berokuntza banatuko sistemak ezartzeko aukera aztertuko da, energia berriztagarrien sorburuak baliatuz, ahal dela.



Esparru desberdinetako espazio publikoetan eta eraikin berrien erabilera komuneko guneetan, kontsumo txikiko argi sistemak erabiliko dira, aldi berean argi kutsadura ekidingo dutenak, hain zuzen.

- Eraikin berriak eta hiri azpiegiturak, bai begien bistara eta bai estetikoki txertatzerakoan, Orioko gune historikoaren ezaugarriak bere horretan mantenduko dira.

7.3. Udalerria antolatzerakoan kalitate akustikoa aintzat hartzea; bizitegirako eremuak ezarri eta diseinatzerakoan, batez ere. Hori horrela, Orioko HAPO idaztearekin batera udalerriko zaraten mapa egitea gomendatzen dugu, area eta sektore desberdinetako kalitate akustikoa zehaztu ahal izateko eta, horrela, kalitate akustikoaren helburuak gainditzen dituzten espazioak antzeman eta bidezko hobekuntza planak planteatzeko. HAPON, nolana ere, udalerriko zonakatzeko akustikoa jaso beharko da, EAEko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, xedatutakoaren arabera egina. Nolanahi ere, etorkizunean hirigintza garapenak egikaritzea aurreikusi den sektore edo areatan, HAPON xehetasunez antolatuak badira behintzat, eragin akustikoaren azterketa egin beharko da, 213/21012 Dekretuak, urriaren 16koak, 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.4. Area eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan ingurumen baldintzen zerrenda bat jasoko da; eta baldintza horiek nahitaez bete beharko dira bai antolamendu xehatuan eta bai urbanizazio proiektuetan. Besteak beste, arearen edo sektorearen urbanizazio lanak egikaritzeko aplikatu beharreko neurri babesgarri eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta bidezkoa denean, baita urbanizazio gastuzat jo behar diren neurri konpentsagarriak ere.

8. INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Orioko Udalak idatzi behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) HAPON osagai bat izango da. Azterketa horretan identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira Plana aplikatuzetik etor daitezkeen eta ingurumenean eragin dezaketen inpaktu aipagarriak; eta Planaren aplikazioak ingurumenean eragin ditzakeen kalteak prebenitzeko edo minimizatzen, teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak diren zentzuzko hautabideak emango dira.

Ingurumen azterketa estrategikoa, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren iraunkortasun txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Bi eranskin horietan zehaztutako apartatuak garatzeko, txosten honen aurreko apartatuetan adierazitako alderdiak landu beharko dira; baita administrazioek, erakundeek eta gainerako interesdunek beren alegazioetan problematikotzat jo dituzten ingurumen arloko gaiak ere, halakorik izanez gero; eta segidan aipatuko ditugunak:

8.1. Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa

Ingurumen azterketa estrategikoan, HAPON edukia jasoko da laburtuta, eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako



jarduera eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako hautabideak ere. Era berean, Planean mugatutako esparruen planifikazio xehatua egiteko aurreikusi diren jardueren eta garapen tresnen denbora-planifikazioa ere azaldu egingo da.

Bestetik, HAPO horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen interakzioak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketan lurralde planekin eta arloko planekin izango dituen erlazioak aztertu beharko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG).
- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikoa Plana.
- Itsasertza Antolatzeko eta Babesteko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko nekazaritzari eta basozaintzari buruzko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra) antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, eta honen 1. aldaketa.
- EAEko hezeguneei buruzko Lurraldearen Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sustatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2009-2015) eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa jasotako Proiektu Proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko arroen esparrurako (2015-2021 berrikuspena).
- Oriaren itsasadarra KBE (ES2120010) izendatzeko kontuan hartu diren kontserbazio helburu eta neurrien agiria.
- Urola Kostako paisaiaren katalogoa eta xedapenak.

HAPOko helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOren barruan jarduteko dauden hautabideak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa-ildoekin ezkatutzeak, desadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan.

Era berean, Aldaketaren eraginpeko eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, Planaren eraginak identifikatu eta ebaluatzeko atalean aztertuko dira.

Azterketa horrek, bestetik, Orioko Tokiko Agenda 21aren prozesua indarrean dagoen ala ez zehaztuko du; eta, indarrean badago, HAPOren helburu, irizpide eta zehaztapenak TA21eko iraunkortasun planarekin bateragarriak diren ala ez analizatuko du.

8.2. Nazioartean, batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.



IAEan azaldu egin beharko da udal antolamenduan nola txertatu diren irismen agiri honen 3. apartatuan, ingurumena babesteari eta iraunkortasunari buruz adierazitako irizpideak, edota HAPOn egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero. Eta horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko dira.

8.3. Orioko udalerrriaren ingurumen karakterizazioa eta berorren bilakaera, klima-aldaketa kontuan hartuta

Azterlan horrek Orioko udalerrriaren ingurumen ezaugarrien deskripzio bat jaso behar du, egungo egoeraren diagnostikoa eginda. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifiko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostiko horretan deskribatu egingo da natur baliabideen, nekazaritzakoen eta paisaiaren egoera, eta hiri-eremuen, industrialdeen eta landa eremuen ingurumen kalitatea; era berean, bereziki zaindu edo babestu behar diren elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerrriak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOn nola eragingo duten baloratzeko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeke.

Deskripzio horrek ez du ingurune fisikoaren ezaugarrietara mugatu behar; horrez gain, Planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri-metabolismoko alderdiei edo aldaerei buruzko informazioa eman behar du; esate baterako, ur hornidura eta saneamenduko sistemak, edo mugikortasun sistema (garraio publiko/pribatua, motorduna/motorgabea), zarata mailak, eta abar.

Udalerrriaren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak —espero den klima-aldaketa, esaterako— kontuan hartuta. Azken faktore horri dagokionez, klima-aldaketak udalerrian eragin litzakeen inaktuak identifikatzea komeni da; eta, era berean, aldaketa horretara egokitzeko batez ere zein esparrutan jardun beharko litzatekeen erabakitzea. ^{(1) (2)}

Orioko ingurumen ezaugarriak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz aztertuko dira HAPOn jasotako jarduera adierazgarrienak edo ondorio handienak eragin ditzaketen jarduerak ezartzeko aurreikusi diren eremu edo kokalekuak; esate baterako, hiri garapenak egikaritzeko aurreikusi diren esparruak.

Era berean, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen dekretuak, hau da, 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, premiazko neurriei buruzkoak, gai honi buruz 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, lurzoru horiek HAPOn jasotako aurreikuspenak hartzeko duten gaitasunari buruz egindako azterketa aurkeztuko da. Azterlan horretan aintzat hartuko dira, besteak beste: uren administrazioak emango duen informazioa uren jabari publikoa babesteari buruz, eta eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur baliabideei buruz, hala nola errepideen gaian eta lehendik badauden gainerako azpiegituren gainean eskumena duten administrazioek egindako txostena, planean jasotako proposamenek izan ditzaketen eraginei buruz.



Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

8.4. Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidea aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gainera, HAPOren helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen hautabide guztien ingurumen arloko azterketa bat jaso behar du. Horretan, aztertutako hautabide bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPO garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren hautabideak proposatu beharko dira. Eta horien artean, "0 hautabidea" sartu beharko da nahitaez; hau da, Orioren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa.

Ahal denean, hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeko aukerak konparatu egingo dira, aukera horiek ezartzeko erabil daitezkeen kokalekuak bezalaxe.

Aurrerapen agiri honetan jasotako plangintzak aintzat hartuta, hautabideen azterketa horretan jaso egin beharko dira honako analisi xehatu hauek:

- Bizitegirako garapen berriak kokatzeko hautabideak. Hasteko, HAPOren indarraldian (8 urte) udalerrian beharko den etxebizitza kopurua zehaztu behar da. Eta kopuru hori arrazoitu egin behar da, parametro sozialak, demografikoak eta ingurumenekoak oinarritzat hartuta, eta betiere, lurralde plangintzak zenbaketa horri buruz ezarritako mugak errespetatuz.

Behin bizitegirako gaitasuna zehazturik, etxebizitza horiek kokatzeko eta banatzeko hautabide desberdinak aztertuko dira; eta zeregin horretan aintzat hartuko dira kokaleku posible horiek ingurumenean izan dezaketen eragina eta proposatutako etxebizitzaren tipologia.

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru hautabideak. Analisi horretan, udalerrian jarduera ekonomikoetarako dagoen lurzoru premia zehaztuko da; eta gainera, ondorioztatzen den eskaerari erantzuteko aukerak aurreikusi eta aztertu. Atal horretan, "0" hautabideaz gain, *Aizperro* sektoreari oraingo sailkapena kentzeko aukera aurreikusi behar da, baldin eta antzemandako lurzoru premiek ez badute jarduketa justifikatzen, edota premia horiei erantzuteko beste aukera eraginkorrago batzuk aurkitzen badira.

Hautabideen azterketak, nolahi ere, zein metodologia erabili den azaldu beharko du; eta, ingurumen arloko faktoreak eta faktore tekniko, funtzional eta ekonomikoak zein neurritan kontuan hartu diren, garatu beharreko irizpide anitzeko azterketa egiterakoan. Baldin eta azkenean erabakitako hautabidea ez bada ingurumen baloraziorik hoberena lortutakoa, hautabide hori aukeratu izanaren arrazoiak justifikatu egin beharko dira.

Proposatutako hautabide guztien kokalekua eta ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio planari.



8.5. HAPOk xedapenek eta jarduketek ingurumenaren gainean izango dituzten ondorio aipagarriak identifikatzea eta baloratzea.

HAPOn aurreikusitako jarduketek inguruneke elementuetan sortuko dituzten ingurumen eraginak identifikatu eta baloratuko dira; elementu horien artean honakoak aipa daitezke, besteak beste:

- Habitat eta espezie urriak edota interesgarriak.
- Nekazaritzarako lurak eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak.
- Lurzoruaren artifizializazioa.
- Ur masak eta uren araudiaren arabera babestuak dauden eremuak.
- Paisaia.
- Hiri ingurunearen kalitatea, zaratari, trafikoari eta abarri dagokienez.
- Giza osasuna.
- Monumentu eta arkeologi ondarea.

Era berean, HAPOn planteatutakoak faktore hauetan izango duen eragina zenbatetsiko da:

- Mugikortasun premian.
- Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoan.
- Kutsatzaileen isurpenean eta hondakinen sorreran

Aztertutako inpaktu horietan sartu behar dira bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak, positiboak zein negatiboak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, epe labur, ertain eta luzerakoak.

Ondorioen identifikazio eta balorazio hori ez da mugatuko antolatutako esparruaren eraldaketa fisikoak eragin ditzakeen zuzeneko inpaktuetara (esate baterako, *urbanizazioak lurzoria artifizializatzea*). Horiez gain, aintzat hartu beharko dira, halaber:

- Proposatutako antolamenduak ingurumenean eragingo dituen zehar ondorioak (adibidez, *hondakin uren gehikuntza, etxebizitzaren edota jarduera ekonomikoaren kopurua gehitzearen eraginez; etxebizitzetan zarata handiagoa jasan behar izatea, jarduera ekonomiko berriak ezartzeagatik, eta abar*).
- Erabilerak eta jarduerak arautzeak eragindako ondorioak (adibidez, *HAPOk, eremu jakin batean abere haztegiak ezartzea baimentzean, era horretako jarduerak sortzen duten usainak eragindako eragozpenak*).

Antzemandako ondorioen garrantzia zehazteko, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean ezarritakoari, eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, III. eranskinean xedatutakoari jarraituko zaio.

Identifikatutako ondorio bakoitzaren indarra eta garrantzia karakterizatu eta baloratuko da. Eta zeregin horretan, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskinaren 8. atalean adierazitako terminologia erabiliko da. Hori horrela, inpaktuaren adierazleak zehaztuko dira



aldez aurretik (adierazgarriak, garrantzizkoak, baztertzailleak, zenbatu daitezkeenak eta erraz identifikatzeko modukoak). Adierazle horiek modu egokian azaldu behar dituzte bai ingurumen eragina eta bai lortu nahi diren kalitate helburuak, onar daitezkeen mugak ezarrita. Horretarako, indarrean dagoen legeriak eta organo eskudunek kasu bakoitzerako emandako jarraibideak hartuko dira erreferentziatzat.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokitzuz gero, HAPOn barruan zeintzuk diren indarreko lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak edo onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, arrazoitu egin beharko dira, egokiagoa dela pentsatuta, prozesuaren gerorako faseetan aztertzeke utzi diren alderdiak.

8.6. Ingurumenean txertatzeko neurriak

Ingurumeneko txosten estrategikoan zehaztu egin beharko dira, HAPOn aurreikusitako jarduketek ingurumenean sortuko dituzten eta adierazgarritzat jotzen diren inpaktuetako bakoitza prebenitu, murriztu eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko neurriak.

Halaber, HAPOn ingurumen alderdiak sartzeak ez luke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, udalerriko ingurumen arazoak konpontzen eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriak ezarri beharko lirateke.

Hori horrela, Orioko HAPO ingurumenean txertatzeko, honako neurri mota hauek hartu behar dira:

1. Ingurumen alderdiak kontuan hartu behar dira lurraldea planifikatzerakoan eta hiria diseinatzerakoan; esate baterako, lurzoru urbanizaezina balio naturalen babesa bermatuko den moduan antolatzea; ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen jarduerak arautzeko ordenantzak ezartzea; garapen berriak ezartzeko, oso sentiberak ez diren kokalekuak aukeratzea, eta abar. Neurri horiek prebentziozkoak izaten dira normalean (edo zuzentzaileak, lehendik badauden ingurumen arloko arazo edo inpaktu jakin batzuen kasuan), eta ohikoan ez dute berariazko aurrekonturik eskatzen.
2. HAPOko zehaztapenak garatuko dituzten plan eta proiektuen ingurumen ondorio negatiboak prebenitu, zuzendu edo konpentsatzeko neurriak. Neurri horiek guztiak egikaritze proiektuetako osagai gisa hartu behar dira, eta hala izanik, aurrekontuetan jaso beharko dira. Neurri horietako asko kasuan kasuko garapen plan edo proiektuan zehaztu beharko dira; baina, edonola ere, HAPOn neurri horiek identifikatu eta berorien gutxieneko karakterizazioa egin beharko da; era berean, garapen plan edo proiektuetan nahitaez bete beharrekoak direla adieraziko da.
3. Udalerriko ingurumen baldintzak hobetzeko jarduketak, beren helburua ekologia edo paisaia bere onera ekartzea, edota eremu nahiz esparru jakin batzuetako ingurumen kalitatea hobetzea denean.

Jarduketa horiek, bakoitzaren inguruko gorabeherak kontuan hartuta eta aurrekontuan erabil daitezkeen kopuruaren arabera, udal aurrekontuen kargura finantzatu ahal izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten diru-laguntzen bitartez. Bestela, hirigintzako



jarduketan ondorioz galdutako natura ondarea konpentsatzeko neurriak direnean, urbanizazio gastuetan sartu ahal izango dira.

Era horretako neurrietan sar daitezke, besteak beste, Motondoko ibarra edo narriatuak dauden beste eremu batzuk bere onera ekartzeko neurriak, konektibitate ekologikoa sustatzera bideratutakoak, hala nola paisaia hobetzeko, habitatak berreskuratzeko edo biodibertsitatea sustatzeko proiektuak.

Hori horrela, leheneratu beharreko kokalekuak edota ingurumen baldintzak hobetzeko jarduerak identifikatu eta horien lehentasun-hurrenkera zehaztu egin beharko lirateke HAPOn, jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarrita.

Bestetik, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, eskatzen duena betez planak klima-aldaketan izango duen eragina arintzeko eta hari egokitzeko neurriak jasoko ditu ingurumen azterketa estrategikoak. Xede horretarako, IHOBek prestatutako gidaliburu metodologikoak erabil daitezke erreferentziatzat. ^(1 eta 2)

Plana ingurumenean integratzeko neurri horiek HAPOko hirigintza dokumentazioan jaso beharko dira; era berean, neurri horien kostu ekonomikoa zenbatetsi, finantzatzeko erak aurreikusi, eta egikaritzeko denbora-plangintza ezarriko da. Halaber, HAPO garatzeko plan eta proiektuetan aintzat hartu beharreko neurriak zehaztu egingo dira.

8.7. Planaren ondorioak ingurumenaren ikuspegitik ikuskatzeko programa.

HAPOk ingurumenean izango dituen eraginak ikuskatzeko programa bat jaso behar du ingurumen azterketa estrategikoak. Eta programa horretan, identifikatutako eragin aipagarri bakoitzaren segimendua egin eta ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarrien betetze maila eta eraginkortasuna ikusi ahal izango da, HAPOn definitutako ingurumen helburuen lortze maila bezalaxe.

Ondorio horiei begira, programak honako hauei buruzko informazioa jaso behar du aldizka-aldizka:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzeak ingurumenean eragindako ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Prebentziozko neurriak, zuzentzaileak eta, halakorik izanez gero, konpentsagarrien aplikazioa eta eraginkortasuna, plana garatzeko egingo diren agirietan eta egikaritze proiektuetan neurri horiek sartzea ere barne hartuta.
- Aurreikusi ez diren baina inguruneke elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Kasuan kasuko alorrean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak, errepideak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten erakunde edota administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzen betetze maila, udal mailako baimenetan ezarritakoena bezalaxe.

Xede horri begira, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:



- Begiratu egin beharko diren ingurumen sistema, alderdi edo aldagaien identifikazioa.
- Burutu beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, betiere bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna, ...) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle horiek, agiri honen 9. apartatuan jasotakoak izan daitezke, edota egokitzat jotzen diren beste hainbat.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

8.8. **Laburpen ez-teknikoa**

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa idatzi beharko da; eta laburpen horretan, informazio zehatza emango da, jendeak erraz ulertzeko moduan.

Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez: HAPO egitearekin lotu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren hautabideak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrienen dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

8.9. **Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsagarrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.**

Hautabideen azterketari analisi ekonomiko bat erantsiko zaio. Honetan kontuan hartuko dira kostu-irabazia analisia eta azterketa ekonomiko eta finantzarioa, eta, ahal den neurrian, ingurumen nahiz gizarte alorreko kanpo kostuak ere sartu egingo dira.

Atal horretan, halaber, HAPO aplikatzeak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen edota aurrekontu banakatua jasoko da, HAPOtik datozen ingurumen kostuak barneratu egingo direla bermatzearen. Era berean, neurri horien finantzaketa iturriak adieraziko dira, Orioko udal aurrekontuen kontura ordainduko direnak eta, halakorik izanez gero, hirigintza proiektuen edo jarduketan sustatzaileek ordaindu beharrekoak bereizita.

9. INGURUMEN EBALUAZIOA ETA IKUSKATZE PROGRAMA EGITEKO AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOAK PROPOSATZEA.



Hautabideen ingurumen ebaluazioa eta ikuskatze programa egiteko aukeratzen diren adierazleak, aldaera batzuen konbinazioa izango dira; alde batetik, HAPOn ezarritako ingurumen helburuak betetzen direla egiaztatzea ahalbidetu behar dute; eta bestetik, plan hori garatzen den bitartean ingurumen ondorioei buruz egindako aurreikuspenak betetzen direla. Horrela, neurri zuzentzaile gehigarriak ezarri ahal izango dira, baldin eta ingurumen baldintzak betetzen ez badira, edota helburu horiekiko gorabeherak gertatzen badira.

Ingurumen adierazleak:

- Ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPO formulatzen eta aplikatzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzea ahalbidetuko dien kudeaketa-tresna moduan funtziona dezaten benetan.
- Neurgarriak eta denbora-tarteetan aztertze modukoak izan behar dute. Denboraren joanean aldatzeko modukoak izan behar dute, hau da, joera kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko xedez aztertze modukoak.
- Adierazle kopuru txikia jarri behar da, inplikaturako eragile guztiek erraz ulertzeko modukoak izan daitezten. Hori horrela, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dute.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio-iturri askotara jo beharrik gabe.

Orioko udalerraren ezaugarriak kontuan hartuta eta hasierako agirian jasotako planteamenduak ikusita, adierazle erabilgarri batzuk honako helburu hauetara bideratutakoak izan daitezke: luraren kontsumoa baloratzea (artifizializatutako lur azalera), lurzorua eta nekazaritza ustiatuek nozituko dituzten ondorioak (nekazaritza ustiatuek kopurua, balio estrategiko handiko lurren azalera) eta natur balioen zaintza eta babesa (habitat interesgarrien azalera, baso autoktonoen azalera, babespeko eremuen azalera, eta abar).

10. INFORMAZIOA EMATEKO ETA KONTSULTA EGITEKO ERAK

21/2103 Legeak, abenduaren 9koak, 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoa betez, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, informazioa emateko eta kontsulta egiteko erei buruz 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz, HAPO gauzatzeko prozeduran aurreikusitako izapideen barruan honako jarduerak burutuko ditu Orioko Udalak:

- a) Ukitutako herri administrazioei eta pertsona interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren atariko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.
- b) Planaren atariko bertsioa eta ingurumen azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko ditu ikusgai, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuta. Eta gutxienez 45 eguneko epea emango du interesdunek aztertu eta bidezko oharrak egin ditzaten.

Arestian esandako horri dagokionez, ukitutako administrazio publikotzat eta pertsona interesduntzat joko dira, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek irismen agiri hau egiteko xedez kontsultatu dituen administrazio eta erakunde publikoak –dokumentu honetako 1. apartatua– eta Udalak plana izapidetzeko prozesuan identifika ditzakeen gainerako antolakunde eta interesdunak (ukitutako lur-jabeak, auzo elkarteak, eta abar).



11. INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA ESKATZEA, ETA JENDAURREKO INFORMAZIO FASEAREN ONDOREN PLANEAN EGIN DAITEZKEEN ALDAKETAK

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa betez, eta plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Orioko Udalak, plana edo programa behin betiko onartu aurretik, ingurumen adierazpen estrategikoa (ingurumen txostena, 211/2012 Dekretuan erabilitako terminologiaren arabera) egin dezan eskatuko dio Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi. Eta eskaera horri, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente osoa erantsiko dio. Honako agiriak izango ditu:

- HAPOko hirigintza agiriak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Espedientean jasota dauden eta kasuan kasuko araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopia, eta kontsultak egiteko izapidean zehar edo jendaurrean ikusgai egon den bitartean aurkeztutako alegazioak.
- Orioko Udalak egindako laburpen-agiri bat, honako alderdi hauek azalduz: ingurumen azterketa estrategikoan jasotako ingurumen alderdiak nola txertatu diren Planaren azken proposamenean, azterketa hori nola moldatu den irismen agirira, egindako kontsulten emaitza zein izan den, eta kontsulta horien erantzuna zein neurritan hartu den kontuan.

Bestetik, baldin eta plana edo programa izapidetzen den bitartean eta kontsultak egiteko eta jendaurreko informazioa emateko izapideak bete ondoren, ingurumenen ondorio nabarmenak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldaketak egitea erabakitzen bada, eta edozein kasutan ere, 211/2012 Dekretuak 4. artikuluan aipatutako kasuren bat gertatzen bada, Udalak berorren berri eman beharko dio Zuzendaritza honi, eta planean edo programan aldatu diren alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa gerta litekeen dokumentazioa bidaliko dio.

Donostia, 2018ko apirilaren 18a

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin.: **MÓNICA PEDREIRA LANCHAS**



- (1) Klima-aldaketara egokitzeko udal programak egiteko gidaliburua. Udalsarea, 21 lan-koadernoak
- (2) Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko (IHOBE)

